

OINARRI ARAUTZAILEAK

V. GILDA EGUNEKO LEHIAKETA TRAPAGARAN 2025

LEHENENGOA.- Xedea

Valle de Trápaga-Trapagarango Udaleko Merkataritza Sailak eta Baturikek – Trapagarango Merkataria, Ostalari eta Serbitzuen Elkartek, Meatzaldeko Merkataritzako Bulego Teknikoarekin lankidetzan, oinarri hauen bidez TRAPAGARANGO GILDA EGUNEKO LEHIAKETAREN V. EDIZIOaren deialdia egiten du, Valle de Trápaga-Trapagaran udalerriko barrako ostalaritza dinamizatu eta sustatzeko.

Egun hauetan dastatu ahal izango dira gildak lehiaketan parte hartzen duten herriko ostalaritza establezimenduetan:

- 2025eko azaroaren 21, 22 eta 23an
- 2025eko azaroaren 28, 29 eta 30ean

Gildak dastatzeko ordutegia hauexek izango dira:

- Ostiral eta larunbatetan, 12:30etik 15:00etara eta 19:30etik 22:00etara
- Igandeetan 12:30etik 15:00etara

BIGARRENA.- Establezimendu parte-hartzaileak

Parte hartzea librea da eta inskripzioak ez du sortzen ezelako gasturik.

Barra daukan edozein ostalaritza establezimenduk har dezake parte, dena dela daukan sailkapena edota maila (taberna, txiriboga, ostatu, kafetegi, jatetxe, etab.) eta horretarako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- a) Ostalaritza establezimendua Valle de Trápaga-Trapagaran udalerrian egon beharko da kokatuta.
- b) Establezimenduak eratuta eta jardunean egon beharko dira oinarri hauek indarrean dauden artean.
- c) Taberna edo jatetxea izango da jarduera nagusia

HIRUGARRENA.- Inskripzioa

Parte hartu nahi duten establezimenduek, oinarri hauen edukia onartu eta betetzeko konpromisoa hartu behar dute, eta inskripzio-fitxa bete eta entregatu egin behar dute ezarritako epeen barruan. Interesaturiko establezimenduek Udalaren eta Baturiken webguneetan on-line eskuragarri dauden inprimaki bat betetzeko egingo dute inskripzioa, 2025eko azaroaren 3ko 9:00etatik 2025eko azaroaren 7ko 13:00ak arte.

Oinarri hauek ez baditu betetzen, establezimendu parte-hartzailea deskalifikatuta gera daiteke 2025eko Trapagarango GILDA EGUNEKO V. LEHIAKETATik.

LAUGARRENA.- Herritarren parte hartzea

Udaleko Tokiko Merkataritza Sailak ibilbide-txartel bat banatuko du herriko postontzi guztietatik. Ibilbide hori parte hartzen duten tabernetan eta herriko zenbait gunetan ere eskuratu daiteke. Txartel hori eskuan, lehiaketan parte hartzen duten establezimenduetara joan, gilda dastatu eta zigilatu egin beharko da. Taberna guztien zigiluak lortu ondoren eta hautaturiko gilda adierazita, establezimendu parte-hartzaileetan, kiroldegian eta Enplegu eta Herriaren Garapenerako Agentzian eskura egongo diren hautestontzietan sartuko dira txartelok eta hortik aterako da establezimendu irabazlea. Hautestontziak zigilatuta eta egoera egokian egongo dira balekoak izateko.

Hainbat sari zozketatuko dira bezero parte-hartzaile guztien artean. Behar bezala zigilatu eta betetako ibilbide-txartelen artean zozketa bat egingo da bezero irabazleak zeintzuk diren ezagutzeko. Zozketa hori 2025eko abenduaren 3an egingo da, 12:00etan Enplegu eta Herriaren Garapenerako Agentzian eta Baturiken Facebook-ean agertuko da. Zozketa egin eta hurrengo egunetan Enplegu eta Herriaren Garapenerako Agentzia arduratuko da irabazleei berria emateaz, haiek ibilbide-txartelean adierazitako bitartekoez.

Gaitutako hautestontzietan behar bezala zigilatuta eta beteta uztea ibilbide-txartelak suposatzen du parte-hartzaileek berriaz onartzen dituztela oinarri horiek guztiak.

BOSGARRENA.- Aurkezpena eta identifikazioa

Establezimendu parte-hartzaile bakoitzak gilda bakar bat aurkeztuko du eta salgai eduki beharko du lehiaketak dirauen egun eta ordutegian. Ez da onartuko gildan aldaketarik egitea. Beti erabili beharko dira osagai berak eta aurkezpen bera.

Udaleko Tokiko Merkataritza Sailak banatuko duen lehiaketako bereizgarriak identifikatuko dira parte hartzen duten gilda guztiak.

Lehiaketarako aurkeztutako gilda salgai egongo da lehiaketak dirauen artean eta gutxienez

- Ostiral eta larunbatetan 12:30etik 15:00era eta 19:30etik 22:00etara.
- Igandeetan 12:30etatik 15:00etara

Gildarik ez baleuka ere, establezimenduak ibilbide-txartela zigilatzeke obligazioa izango du.

Establezimendu parte-hartzaileak identifikazio-zigilu bat izango beharko du ibilbide-txartelean jartzeko, sinadura ez delako baliozkotzat hartuko.

SEIGARRENA.- Prezioa

Lehiaketako gilda guztiek 2 euroko gehieneko prezioa izango dute.

Gildaren prezioa kontsumizio bati lotuta egongo da.

ZAZIPGARRENA.- Sariak

Udaleko Tokiko Merkataritza Sailak eta Baturikek banatuko dituzte sariak, berezuenak zein establezimendu parte-hartzaileenak.

Establezimendu irabazleari sari hauek emango zaizkio: diploma bat, trofeo bat, publizitate-kanpaina bat Radio 7n gilda irabazlea gomendatzeko eta Udalak eskainitako 200 €-ko eskudirutan. Establezimendu irabazleak konpromisoa hartuko du bere gilda hilabetez salgai edukitzeko (larunbat eta igandeetan) lehiaketa hau amaitu eta gero.

2025ko abenduaren 3an, eguerdiko 12:00etan, Enplegu eta Herriaren Garapenerako Agentzian egin eta Baturiken Facebook-ean argitaratuko den zozketan irabazle suertatzen diren ibilbide-txartela bete duten bezeroentzako sariak hauek izango dira:

- Lehenengo saria: Udalak eskainitako 150 euroko eskudirutan.
- Bigarren saria: Udalak eskainitako 100 euroko eskudirutan.
- Hirugarren saria: 50 euroko erosketa-txartel bat, Baturikek emana, bere atxikitutako ostalaritza establezimenduetan erabiltzeko.

OHARRA: Udalarekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik, beste erakunde batzuek ematen dituzten sariak azken orduan aldatu edo bertan behera utzi ahal izango dira, eta horren berri izan bezain laster jakinaraziko da.

Udalak emandako goian adierazitako sariei dagokienez, sarien banaketa oinarri hauetan, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorrean eta Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren Erregelamenduan ezarritakoaren arabera arautuko da, bertan aurreikusten ez denerako. Osagarri gisa, administrazio-zuzenbideko gainerako arauak aplikatuko dira, eta, halakorik ezean, zuzenbide pribatukoak. Prozedura izapidetzeko eta ebazteko organo eskuduna Udaleko Tokiko Merkataritza Arloa izango da. Udalak emandako sariak, 450 €-ko balioa izango dutenak, 2025erako luzatutako aurrekontuetan sartutako 4310-47000 aurrekontu-partidari egotziko zaizkio. Udalak emandako sari horiek egindako gastua justifikatuz ordainduko dira.

Udalak emandako sari horiek saridunak Udaleko Enplegu eta Toki Garapenerako Agentzian horretarako ematen duen banku-kontuan ordainduko dira. Halaber, behean adierazitako betebeharrak betetzen dituela justifikatzen duen dokumentazioa erantsi beharko du.

Parte hartzaileek Udalak emandako sari horietarako bete beharreko baldintzak: Ezin izango dute deialdietan parte hartu pertsona fisiko, juridiko edo entitateek, baldin eta horietako bakoitzean ezarritako parte hartzeko baldintza espezifikoak betetzen ez badituzte ezta Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 13. artikuluan dirulaguntzak jasotzeko ezarritako

debeku-kausaren batean sartuta badaude. Era berean, parte-hartzaileek egiaztatu beharko dute egunean dituztela zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, eta dirulaguntzak itzultzeagatiko betebeharrak ere bai, aurrekontua gauzatzeko oinarrietan ezarritako moduan.

ZORTZIGARRENA.- Epaimahai herrikoa

Publikoak hautatuko du gilda irabazlea, banatuko den ibilbide-txartelean gehien gustatu zaien gildaren aldeko botoa emanez. Txartel horietan antolatzaileek erabakitzen duten gutxieneko zigilu-kopurua egongo da eta establezimendu parte-hartzaileetan, kiroldegian eta Enplegu eta Herriaren Garapenerako Agentzian eskura egongo diren hautestontzietan sartuko dira txartelok.

2025eko abenduaren 4an emango da jakitera zeintzuk izan diren lehiaketa honetako establezimendu irabazlea Udalaren webgunean (www.trapagaran.net) eta Baturik-en webgunean (www.baturiktrapagaran.com).

BEDERATZIGARRENA.- Obligazioak eta ez-betetzea

Establezimendu parte hartzaileek Udalak eskatzen dien informazio guztia emango diote, lehiaketa honen kanpainako antolatzaile den aldetik bete behar dituen eginkizunetarako eta lehiaketa honetan parte hartzea ahalbideratu dieten edozein baldintzetan unean-unean gertatu litezkeen aldaketen berri eman beharko diote.

Oinarri hauetan ezarritako baldintzak eta obligazioak ez betetzeak lehiaketatik kanporatzea ekarriko du.

HAMARGARRENA.- Publizitatea

Valle de Trápaga-Trapagarango Udalak GILDA lehiaketa egiteko datuak bilduko ditu tokiko garapen ekonomikoa sustatzeko asmoz, Euskadiko Toki Erakundearen 2/2016 Legea eta Datuak Babesteko 3/2018 Lege Organikoaren 8. artikuluan ezarritakoaren arabera. Parte-hartzaileen eta zozketetako irabazleen datu pertsonal identifikatiboak eta irudizkoak hirugarrenei komunikatu dakizkieke udalaren hedabide eta komunikabide elektronikoen bidez. Interesdunak datuok eskuratzeko, zuzentzeko eta kentzeko eskubidea du eta haien tratamendua mugatzeko edo aurkaratzeko ere bai eta informazioa areagotzeko ere bai, Udalaren helbidera edo posta elektronikoa honetara idatziz dbo-dpd.trapagaran@bizkaia.org

Aipatutako oinarriak udalaren webgunean egongo dira eskuragarri, eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira Dirulaguntzen Datu Base Nazionalaren bidez.

HAMAIKAGARRENA.- Interpretazioa

Antolatzaileek eskubide izango dute Oinarri hauek interpretatzeko zalantzak sortzen dituzten edozein egoeratan, eta haien erabakiak behin betikotzat hartuko dira.